

# Sagarrak gozotasuna hartuko du igandean

Kronika - Erredakzioa 2019-09-25 02:00



«Sagarraren heldutasuna pixka bat atzeratuago dator» esan zuen Felix San Sebastián Fruitel Elkarteko lehendakariak eta «sagar urtea ere bada» nabarmendu zuen atzo, Foru plazan, sagardo sagarraren heldutasunaren eta 19garren Sagar Uztaren aurkezpenean. Hori dela eta, «sagasti askotan adar eta enborra asko hautsi dira eta sagarraren neurria txikiagoa da. Lehenengo datuen arabera, orokorrean, sagar ederra dago. Aurreko urtearekin alderatuta, azukre gutxixeago dakar sagarrak orokorrean, nahiz eta datu hori zerbait aldatuko den azken egun hauetan».

Eta dudarik gabe, gozotasuna irabazten lagunduko du bihartik hasiko den Sagar Uztaren festak. Xabier Urdangarin alkateak aurkeztu zuen eta berarekin batera Antton Arkak azaldu zuen egitaraua. Haiekin batera, Euskal Sagardoa Jatorriko sagardogileak, Jokin Mariezkurrenak ordezkaturik, tabernariak eta kultur taldeak egon ziren.

## **Julen Lizeaga sagar ekoizleari, aipamen berezia**

Ekitaldiaren ospakizun nagusia igandean izango da. Han, unean bertan egingadako 2019 uztako lehen muztioa dastatzeko aukera izango da, baita sagardogileen aurreneko muztioaz gozatzeko aukera ere. Aurten gainera, berrikuntza gisa, aipamen berezia egingo zaio Julen Lizeaga sagar ekoizleari sagardo sagarraren alde egindako lanagatik. Topa egin aurretik egingo zaio.

Bihar emango zaio hasiera ospakizunari, ohiko pintxopotearekin. Sagarraren eratorriekin egindako pintxoak dastatu ahal izango dira tabernetan. Sagardoe-txeako bisita gidatua egitera gonbidatu zaie azken urteetan herrira etorri diren herrikide berriei.

Larunbatean helduko diote berriro, Sagar Bira mendi bueltarekin, Santiomendiko Sagardo Bidean zehar. Horretarako izena eman behar da, eta baita igandean izango diren beste hiru ekintzatarako ere: Argazki Rally Digitala, sagar mermelada tailerra, eta muztioaren elaborazioa. Sagarraren Jaiaren barruan egingo dituzte horiek, Foru Plazan. «Ia 60 familiak eman dute izena» aipatu zuen Antton Arkak, herriko eragile desberdinen ordezkari bezala.

Ekintza mordoa ere izango da igandean. Goizean hasi eta arratsaldean amaituko da jaia Euskal Herriko aizkolari Gazteen txapelketarekin eta afizionatuen pelota partiduarekin. Bertan herriko semeak ariko dira lehian: Markel Zapiain eta Axel Larrañaga.

## Sagardo lehiaketa, larunbatean Ergobin

Aurretik, Ergobiko plazan izango da zita garrantzitsua, larunbatean: Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiairen finala jokatuko da 12 sagardo onenen artean, 20:00etatik aurrera.

## SAGAR UZTA FESTA

### IRAILAK 26, Bihar

19:00-21:00, Pintxopotea, Astigarragako tabernetan. Sagarraren eratorriekin egindako pintxoak eskainiko dira.

### IRAILAK 28, larunbata

09:30, Sagar Bira: Santiomendiko Sagardo Bidean zehar mendi buelta, familian\*.

20:00, Euskal Herriko V. Sagardo Txapelketa Herrikoiairen finala, Ergobin.

### IRAILAK 29, igandea

Sagarraren Jaia, Foru Plazan

09:30, Txirrisklako txistularien diana.

10:30-12:00, XII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izenematea, plazan\*.

11:00-14:00, Sagarraren azoka: sagar mermelada tailerra\*; sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta; sagardo eta muztio dastaketa; saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak; herriko baseritarren produktuen salmenta; eta trikitilariak herrian zehar.

11:00, Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea, eta zanpatzea, bertaratutako familien laguntzarekin\*.

12:30, Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00, Txalaparta, eta 2019 uztako lehen muztioaren topa herrikoia. Julen Lizeagari aipamen berezia

14:30, Herri bazkaria.

16:30, Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketa.

17:15, Afizionatuen pelota partidua.

\*Izenemateak aldeztu aurretik: [www.sagardoarenlurraldea.eus](http://www.sagardoarenlurraldea.eus), [info@sagardoarenlurraldea.eus](mailto:info@sagardoarenlurraldea.eus), edo 943 55 05 75



[Gizartea](#)



Erantzun ▼



## Ikusienak



[«Ordulari gabe bizitza izugarritzko luxua da»](#)

Kronika - Erredakzioa

urr 29, 00:00 [Hernani](#)

[Odola emateko fideltasunari esker ona, 22 hernaniarri](#)

Kronika - Erredakzioa

urr 29, 00:00 [Hernani](#)

[Sei hernaniarrek podiumera igotzea lortu dute Ipar Martxan](#)

Kronika - Erredakzioa

urr 29, 00:00 [Hernani](#)

[Laguardian kantari eta Bastidan bisitari, asteburu berezian](#)

Kronika - Erredakzioa

urr 30, 00:00 [Hernani](#)

[Hernaniko senior taldeak Udapa Lankide, Euskadiko txapeldun ordea gainditu du Gasteizen](#)

Kronika - Erredakzioa

urr 29, 00:00 [Hernani](#)

[Hirugarren Senper, Leyre Trailen](#)

Kronika - Erredakzioa

urr 29, 00:00 [Hernani](#)

## Kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#)[LEGE OHARRA](#)[PUBLIZITATEA](#)[ARAUAK](#)[HARREMANETARAKO](#)[RSS](#)

Gipuzkoako Foru Aldundia

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICAHernaniko  
Udala

Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)[AIKOR](#)[ANBOTO](#)[ATARIA](#)[BALEIKE](#)[AIURRI](#)[ERRAN](#)[EUSKALERRIA IRRATIA](#)[GOIENA](#)[GUAIXE](#)[HIRUKA](#)[KARKARA](#)[MAXIXATZEN](#)[PLAENTXIA](#)[ALEA](#)[28 KANALA](#)[ANTXETA](#)[BARREN](#)[ERLO TELEBISTA](#)[GEURIA](#)[GOIERRI TELEBISTA](#)[KRONIKA](#)[MAILOPE](#)[NOAUA](#)[DEUSTUALDEA PREST](#)[TXINTXARRI](#)[URIOLA](#)[UZTARRIA](#)[AMEZTI](#)[OIZMENDI TELEBISTA](#)[Gurean](#)[Plazanbazan](#)[Ttap](#)[Tokikom publizitatea](#)